

ZARAUTZ / Krisiaren inguruko gida prestatu du Sanz Eneak

Zarauzko liburutegian liburu, dokumentalak eta aldizkariak daude ikusgai

ZARAUTZ. Zarauzko Sanz Enea liburutegiak Ekonomia, krisia, pobrezia deituriko gida prestatu du eta bizilagunek eskatu ditzakete bertako dokumentuak.

Nahi duen orok gaur egun guztien ahotan dabilen gaiaren inguruko informazioa eskuragarri izango du udal liburutegian. Sanz Eneako arduradunek jakinarazi dutenez, liburuez gain, dokumentalak eta aldizkariak ere prestatu dituzte.

Ordutegiak

Ekonomia, krisia, pobrezia gida ikusi nahi duenak liburutegiko kideek zehaztu duten ordutegian gerturatu beharko dute Sanz Eneara. Honela, udan (ekainetik irailera), astelehenetik larunbatera, helduen liburutegian 9.00etatik 14.00etara eta 17.30etik 20.00etara egongo da ikusgai gida berria eta haur liburutegian, berriz, 10.00etatik 14.00etara.

Ikusentzunezkoak nahi dituenak 10.00etatik 14.00etara izango du aukera begiratzeko. Besteak beste, Naomi Klein, Paul Krugman eta José Luis Sampedro adituen obrak daude aukeran liburutegian. >a.l.